

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZARTE POLITIKEN SAILA

#### Sentsibilizaziorako, prebentziorako eta gizarte-sustapenerako informazioa emateko eta 2026an ekintza solidarioak sustatzeko jarduerak eta ekintzak diruz laguntzeko behin betiko ebazpena

Lehenengoa. Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 6an egindako ohiko bilkuran honako hau onetsi zen: 2026. urtean Vitoria-Gasteizen ekintza solidarioak sustatzeko xedez, sentsibilizaziorako, prebentziorako eta gizarte-sustapenerako informazioa ematen dituzten jarduerak eta ekintzak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak.

Bigarrena. Deialdia eta oinarriak 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn argitaratu ziren, eta eskabi-deak aurkezteko epea 2026ko apirilaren 29ra arte ireki zen. Ondoren, Gobernu Batzordeak 2026ko apirilaren 24an zuzendu zuen, eta 2026ko maiatzaren 20ko ALHAOn argitaratu ziren deialdia eta oinarri zuzenduak. Ekainaren 9ra arteko epe berri bat ireki zen, eta honako eskabide hauek aurkeztu zituzten parte hartu zuten erakundeek:

| ERAKUNDEAK                                                 | ESKATUTAKO<br>ZENBATEKOA (EUROTAN) |
|------------------------------------------------------------|------------------------------------|
| Asociación Gizarterako                                     | 10.000                             |
| Fundación Avanti BoscoSocial                               | 10.000                             |
| Icono difusión cultural, S.C.                              | 8.750                              |
| Asociación Nagusilan                                       | 10.000                             |
| Asociación Teléfono de la Esperanza y Amistad              | 5.500                              |
| Asociación Insola                                          | 10.000                             |
| Asociación Konexio-Ona                                     | 9.980                              |
| Asociación Kuentame                                        | 10.000                             |
| Fundación Corazonistas                                     | 10.000                             |
| Asociación Ikiriki                                         | 8.265,44                           |
| Asociación Ai Laket                                        | 10.000                             |
| Fundación Itaka-Escolapios                                 | 10.000                             |
| Ehunbide Fundazioa                                         | 9.794,88                           |
| Federación de asociaciones de familias numerosas, Hirukide | 9.000                              |
| Asociación de apoyo a la crianza Besartean                 | 3.306,65                           |
| Asociación Naizen                                          | 7.400                              |
| Asociación Casa de iniciativas Zubia gurutzatzen           | 10.000                             |
| Asociación Eginaren Eginez                                 | 10.000                             |
| Asociación Aspasor                                         | 8.500                              |
| Asociación Esku Hutsik                                     | 3.400                              |
| Asociación Médicos del Mundo                               | 8.210                              |

Hirugarrena. Vitoria-Gasteizen 2026an proiektu sozialak garatzeko dirulaguntzen oinarri espezifikoekin bat etorriz, eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz, balorazio batzordea bildu egin da. Batzorde hori honako hauek osatzen dute: Gizarte Politiken Saileko Atal Teknikoko psikologoa, zeina batzordeburu izango baita; Komunitate Jardueren Zerbitzuko Programa Psikosozial eta Komunitarioetako burua, zeina batzordeko

idazkari izango baita; Gizarte Inklusioaren Zerbitzuko Ostatu eta Harrera Baliabideen ataleko burua; Adinekoen Zerbitzuko gizarte-langilea, eta Hautzaro eta Senitarte Zerbitzuko Prebentzio, Promozio eta Partaidetza ataleko gizarte-hezitzailea.

Laugarrena. Hori guztia ikusita, eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoarekin bat etorritik, balorazio batzordeak balorazio-txostena egin zuen 2026ko ekainaren 30ean. Txosten horretan honako hau jasotzen zen:

Ez dira diruz lagunduko.

Dirulaguntzen oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera, honako hauek ez dira diruz lagunduko:

— Sexu, genero, adin, jatorri, erlijio eta abarrengatik zuzeneko edo zeharkako bereizkeria dakarten proiektu edo programa sozialak, baldin eta giza eskubideak urratzen badituzte edo zuzenbidearen aurkakoak badira.

— Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea urratzen duten gizarte-proiektu edo -programak.

— Udaleko beste sail baten edo lurralde historikoko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko beste entitateen baten berariazko eskumenekoak diren jarduera edo ekintzek osatutako proiektuak. Ildo horretan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalen gizarte-zerbitzuei dagokie lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea eta betetzea: "zerbitzu horiek bide emango diete erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristeko, eta autonomiaren, gizarteratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzungo diete, eta batez ere arrisku-egoeren prebentzioari erreparatuko diote".

— 2026an Gizarte Politiken Sailaren 10.000,00 eurotik gorako dirulaguntza izendunen onuradun diren entitateen proiektuak.

Udalaren sailetako dirulaguntza izendunen bat jaso duten proiektu, jarduera edo ekintzekin alderik ez dutenak, nahiz eta dirulaguntza 10.000,00 eurotik beherakoa izan.

— Deialdiaren xedean sartzen ez diren proiektu, jarduera eta ekintzak.

— Urte berean udaleko beste sail batzuen dirulaguntza-deialdira aurkeztu diren proiektuak.

Balorazio-irizpideak. Proiektu sozialak garatzeko dirulaguntzen oinarri espezifikoaren arabera, hauek dira dirulaguntzak emateko ezarritako balorazio-irizpideak:

Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Gehienez 40 puntu.

Alderdi hauek balioetsiko dira:

1. Aurrekontua proiektuaren neurritik egokitzea. Gehienez 10 puntu.

Kontzeptuen aurrekontua proiektuaren edukira doitzea, baita benetako kostura ere, merkaturako prezioaren arabera.

2. Finantzaketaren definizioa eta banaketa. Gehienez 10 puntu.

Proiektu zehatzaren aurrekontuaren banaketa eta banakatzea, proiektuan ezarritako ekintzen arabera.

3. Entitateak arlo horretan duen esperientzia. Gehienez 8 puntu.

4. Erakundearen batzordearen, zuzendaritza-organoaren edo administrazio-kontseiluaren osaera, emakumeek gutxienez ehuneko 50eko partaidetza badute. Gehienez 2 puntu.

5. Entitatea antolatzeke eta kudeatzeko moduak. Gehienez 5 puntu.

Entitatearen antolakuntzaren eta barne-kudeaketaren deskribapena.

6. Entitatearen ibilbidea. Gehienez 5 puntu.

Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren irizpidean 20 puntura iristen ez diren proiektuak (eta horietatik bideragarritasun ekonomikoan gutxienez 8 puntu lortu behar dira) ez dira kontuan hartuko dirulaguntza ematerakoan.

Puntuazioa atalen kalitatearen eta xehetasunaren arabera emango da, hau da, zenbat eta zehatzagoak izan, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa.

Zerbitzuaren edo programaren gizarte- eta komunitate-onura. Gehienez 40 puntu.

Alderdi hauek balioetsiko dira:

1. Biztanlerian antzemandako eskaera edo premia bati erantzutea Gehienez 8 puntu.

2. Administrazioaren erantzunaren osagarri izatea. Gehienez 8 puntu.

3. Boluntariora sustatzea. Gehienez 6 puntu.

4. Gizarte-sareak eta gizarte-sostengua bultzatzen duten testuinguruak diseinatu eta planifikatzea. Gehienez 6 puntu.

5. Eragindakoen parte hartzea sustatzea haiei dagozkien arazoak konpontzeko. Gehienez 6 puntu.

6. Herritarrak, oro har, sentsibilizatzea eta informatzea. Gehienez 6 puntu.

Lehentasuneko helburuak, eta Gizarte Politiken Sailaren plangintza, xede eta helburuekin bat etortzea. Gehienez 20 puntu.

Alderdi hauek balioetsiko dira:

1. Proiektua Sailaren helburuetara egokitzea: gizarteratzea sustatzea, kalteberatasun- eta/edo bazterketa-egoerak prebenitzea, autonomia hobetzea, etab. Gehienez 7 puntu.

2. Desberdintasunei genero-ikuspegitik helduko dieten ekintza eta jarduera espezifikoak ezartzea. Gehienez 3 puntu.

3. Proiektuetan jasota dauden jarduketara, jarduera eta ekintzek sailaren eta hura osatzen duten zerbitzuen helburu espezifikoekin lotura izatea. Gehienez 7 puntu.

4. Haurren eta nerabeen ikuspegia jorratzen duten ekintza eta jarduera espezifikoak ezartzea. Gehienez 3 puntu.

Aurrekariak kontuan izanik, dirulaguntzak ez onartzeko, ez emateko edo ezesteko proposamen hau egin da:

1. Balioespen-prozesuan onartu ez diren proiektuak.

Deialdiaren oinarri arautzaileetako baldintzak ez betetzeagatik onartu ez diren entitateak:

— “Eginaren Eginez” Desgaitasun fisikoa duten pertsonen Arabako Elkartek proiektu hau aurkeztu du: “Oztopoak sortzen dituzten galderak. Gizartea sentsibilizatzeko kanpaina, desgaitasuna duten pertsonen inklusioa eta autonomia sustatzeko”.

Gizarte Politiken Sailaren 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn eta 2026ko maiatzaren 20ko ALHAOn argitaratutako «Vitoria-Gasteizko Udalaren 2026rako informazio-, sentsibilizazio-, prebentzio- eta sustapen-jardueretarako eta -ekintzetarako dirulaguntzen deialdia, ekintza solidarioak edo boluntarioak sustatzeko» oinarri arautzaileek 2. apartatuan («Deialdiaren xedea») adierazten dutenez, proposatutako jarduerak Gizarte Politiken Sailaren eskumenekoak izan behar dute, eta ez dute beste udal-sail baten dirulaguntzen deialdi espezifikoaren xede izan behar.

Oinarri horietan bertan, diruz laguntzen ez diren proiektuak jasotzen diren atalean (9. atala “Ez da dirulaguntzarik jasoko”), adierazten da ez dutela dirulaguntzarik jasoko “Beste udal-sail edo -erakunde batzuen, edo lurralde historikoko edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde batzuen eskumen espezifikoak diren jarduerak edo ekintzak dituzten proiektuek”.

Uste da “Eginaren Egin” elkarteak aurkeztutako proiektua ez datorrela bat Gizarte Politiken Sailaren eskumenekin, eta Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko Osasun Publikoaren Zerbitzuaren eskumena dela. Azken sail horrek deialdi hau egin du: “Gaixotasunen prebentzioan, osasunaren sustapenean eta gaixoen bizi-kalitatearen hobekuntzan sentsibilizatzeko proiektuetarako laguntzak” (Irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio edo erakunde pribatuen proiektuetarako laguntzak, gaixotasunen prebentzioaren arloan sentsibilizazio-proiektuak garatzeko, gaixotasunak edo afekzio kronikoak dituzten pertsonen osasuna sustatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko laguntzak, betiere Vitoria-Gasteizko herritarrei zuzendutakoak), eta proiektu hori bertan sartuko litzateke.

Horrenbestez, aurkeztutako proiektua bazter uzten da, ez baita deialdi honen xedetzat jotzen.

— “Icono difusión SC” sozietate zibilak “Inklusiorako argazkia” proiektua aurkeztu du.

Gizarte Politiken Sailaren 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn eta 2026ko maiatzaren 20ko ALHAOn argitaratutako «Vitoria-Gasteizko Udalaren 2026rako informazio-, sentsibilizazio-, prebentzio- eta sustapen-jarduerak eta -ekintzak egiteko eta ekintza solidarioak edo boluntarioak sustatzeko dirulaguntzen deialdia» izenekoaren oinarri arautzaileek, 5. apartatuan («Erakunde onuradunak»), adierazten dute deialdi honetan parte hartu ahal izango dutela estatutuen helburuen artean berriaz prebentzioaren eta gizarte-sustapenaren arloarekin lotutako ekintzak egitea edo desabantaila-egoeran dauden biztanleentzako elkartasun- eta laguntza-jarduera zuzenak hedatzera bideratutako ekintzak egitea duten irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio edo erakundeek.

Erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da Icono Difusión Cultural sozietate zibil pribatu eta partikular gisa eratuta dagoela, eta ez duela deialdiaren oinarrietan eskatzen den irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio edo erakundearen izaera juridikorik.

Ondorioz, aurkeztutako proiektua baztertu egin da, oinarri arautzaileetan aurreikusitako erakunde onuradunaren izaera ez duelako.

— “Ehunbide Fundazioak” “Bideak Ehuntzen: laguntza psiko-sozio-hezitzailea eskola-jazarpeneko egoeretan” proiektua aurkeztu du.

Gizarte Politiken Sailaren 2026ko apirilaren 8ko ALHAOn eta 2026ko maiatzaren 20ko ALHAOn argitaratutako «Vitoria-Gasteizko Udalaren 2026rako informazio-, sentsibilizazio-, prebentzio- eta sustapen-jardueretarako eta -ekintzetarako dirulaguntzen deialdia, ekintza solidarioak edo boluntarioak sustatzeko» oinarri arautzaileek 10. apartatuan («Programa edo jarduera bakoitzeko eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa») adierazten dutenez, erakunde bakoitzak proiektu bakar baterako dirulaguntza eskatu ahal izango du, 10.000,00 eurokoa gehienez ere. Gainera, aurkeztutako proiektuak 30.000,00 euroko aurrekontua izan dezakeela adierazi du. Era berean, ezartzen du bi zenbateko horietako edozein gainditzen duten proiektuak deialditik kanpo geratuko direla.

Erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, egiaztatu da Ehunbide Fundazioak aurkeztutako proiektuaren guztizko kostua 32.055,86 eurokoa dela, eta deialdiaren oinarrietan eskatutako gehieneko aurrekontuaren 30.000,00 euroko muga gainditzen duela.

Ondorioz, aurkeztutako proiektua baztertu egin da, ez baitu betetzen oinarri arautzaileetan aurreikusitako aurrekontu-mugaren baldintza.

2. Betekizunak egiaztatu dituzten eta ebaluatu diren proiektuak.

Onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituztela konprobaturik, proiektuak baliotsi egin dira, oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideei jarraiki.

Deialdiko balorazio-baldintzak eta -irizpideak bete dituen proiektu bakoitzari emango zaion zenbatekoa kalkulatzeko, onartutako eta baloratutako eskabideak alderatuko dira, haien arteko hurrenkera ezartzeko. Aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa era proportzionalean banatu da, lortutako puntuazio-tarteen eta eskatutako zenbatekoaren arabera.

## 2.1. Balioetsi ondoren bideragarritasun irizpidea betetzen ez duten proiektuak.

Proiektuak balioetsi eta puntuazioak ezarri ondoren, aipatzen diren elkarteek aurkeztutako proiektuei dirulaguntzarik ez ematea erabaki da, ez dutelako gutxieneko puntuazioa (8 puntu) lortu bideragarritasun ekonomikoari dagokien (deialdiaren zazpigarren oinarrian zehaztua).

Bideragarritasun ekonomikoari buruzko atal hori honela ezarri da:

### 1. Aurrekontua proiektuaren neurria egokitzea. 10 puntu gehienez

Kontzeptuen aurrekontua proiektuaren edukira doitzea, baita benetako kostura merkatuko prezioaren arabera.

### 2. Finantzaketaren definizioa eta banaketa: gehienez 10 puntu.

Proiektu zehatzaren aurrekontuaren banaketa eta banakatzea, proiektuan ezarritako ekintzen arabera.

HIRUKIDE-Familia ugarien elkarten federazioak 6 puntu lortu ditu bideragarritasun ekonomikoaren irizpidean. Puntuazio hori honako balorazio honen arabera lortu du:

— Gastuen eta sarreraren aurrekontua aurkeztu dute. Bertan, proiektu osoaren diru-sarreraren zerrendan, Eusko Jaurlaritzatik jasotako 2.780,14 euroko dirulaguntza aipatzen da. Zenbateko hori deialdi honen bidez Vitoria-Gasteizko Udaletik jasotzea espero den zenbatekoari (9.000,00 euro) gehitzen zaio, eta ez da zehazten ez ekarpen horien banaketa zehatza, ez proiektuan aurreikusitako gastuekin duten lotura.

— Beraz, ez da identifikatzen zer gastu-partida finantzatzeko litzatekeen aurreikusitako finantzaketa-iturri bakoitzaren bidez, eta horrek zaildu egiten du aurrekontuaren barne-koherentzia eta proiektuaren baliabide ekonomikoen banaketa egokia egiaztatzea.

— Ondorioz, ez dago argi erakundeak zer zenbateko, zerbitzu edo ekintzatarako erabiliko lukeen Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailari eskatutako dirulaguntzaren dirua, ez baitago proiektuaren aurrekontu-banaketa egoki, zehatz eta espezifikorik, proiektuan ezarritako ekintzen arabera.

— Gainera, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzaren zenbatekotik langileak kontratatzeke erabiliko zena argi eta garbi adierazten ez denez, ezin da jakin aurrekontuaren zer proportzio dakarren langileak kontratatzeak.

Horrenbestez, aurkeztutako proiektua bazter uzten da, ez baitu eskuratu bideragarritasun ekonomikoaren atalean eskatzen den gutxieneko puntuazioa.

## 2.2. Balioetsi ondoren bideragarritasun irizpidea betetzen duten proiektuak.

Hona hemen gainerako eskaintzen balorazioa:

| ERAKUNDEAK                                    | PUNTUAZIOA |
|-----------------------------------------------|------------|
| Asociación Gizarterako                        | 95         |
| Fundación Avanti BoscoSocial                  | 94         |
| Asociación Nagusilan                          | 68         |
| Asociación Teléfono de la Esperanza y Amistad | 73         |
| Asociación Insola                             | 83         |
| Asociación Konexio-Ona                        | 79         |
| Asociación Kuentame                           | 75         |
| Fundación Corazonistas                        | 84         |
| Asociación Ikiriki                            | 75         |
| Asociación Ai Laket                           | 73         |
| Fundación Itaka-Escolapios                    | 84         |
| Asociación de apoyo a la crianza Besartean    | 86         |

| ERAKUNDEAK                                       | PUNTUAZIOA |
|--------------------------------------------------|------------|
| Asociación Naizen                                | 63         |
| Asociación Casa de iniciativas Zubia gurutzatzen | 63         |
| Asociación ASPASOR                               | 79         |
| Asociación Esku hutsik                           | 54         |
| Asociación Médicos del mundo                     | 57         |

3. Eskabideak birformulatzea. Eskatutako kopuruaren 100eko 100 eman ez zaien entitate guztiei jakinarazi egin zaie emandako kopurua, eta orobat adierazi zaie eskabidea berriz formulatzeko aukera dutela, eman daitekeen dirulaguntzaren konpromiso eta baldintzetara egokituta. Edonola ere, eskabideak birformulatzean errespetatu egin beharko dira dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburuak, baita eskabideei buruz ezarritako balioespen irizpideak ere, hala jasotzen baita Vitoria-Gasteizko Udalaren 2026ko dirulaguntzetarako oinarri arautzaileen birformulazio atalean.

Birformulazioak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 22ra arte egon da zabalik. Birformulazio-proposamenak aurkeztu dituzte honako erakunde hauek:

— Itxaropenaren telefonoa elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 24.375,00 eurotik 22.275,00 eurora.

— KUENTAME elkarteak 20.000,00 eurotik 18.850,00 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa.

— Ai Laket elkarteak 29.750,00 eurotik 29.750,00 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa. Erakundeak jartzen duen zenbatekoa aldatu du.

— Esku hutsik elkarteak birformulatu egin du hasierako proiektuaren zenbatekoa, 5.400,00 eurotik 4.058,00 eurora.

— Munduko medikuak elkarteak 13.870,00 eurotik 8.572,05 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa.

— Naizen Elkarteak 8.000,00 eurotik 4.470,00 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa.

— Zubia Gurutzatzen elkarteak hasierako proiektuaren zenbatekoa birformulatu du, 20.400,00 eurotik 16.450,00 eurora.

— Itaka-Escolapios Fundazioak 25.064,71 eurotik 25.064,71 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa. Erakundeak jartzen duen zenbatekoa aldatu du.

— Besartean Elkarteak 4.935,30 eurotik 4.775,30 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa.

— Konexio Ona elkarteak 16.380,00 eurotik 14.232,30 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa.

— IKIRIKI gizarte eta hezkuntza elkarteak 8.265,44 eurotik 7.314,91 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa.

— ASPASOR elkarteak 11.290,00 eurotik 11.290,00 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa. Erakundeak jartzen duen zenbatekoa aldatu du.

— Nagusilan elkarteak 6.947,00 eurotik 16.947,00 eurora birformulatu du hasierako proiektuaren zenbatekoa. Beste batzuei egozten dien zenbatekoa aldatu du.

Taula honetan laburbildu dira hala eskatu zuten erakundeek aurkeztutako birformulazioen ondoren egindako aldaketak:

| ERAKUNDEAK                          | HASIERAKO PROIEKTUAREN ZENBATEKOA | ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA | PROIEKTUAREN ZENBATEKOA | EMANDAKOA, GUZTIRA |
|-------------------------------------|-----------------------------------|---------------------------------------|-------------------------|--------------------|
| Asociación Teléfono de la Esperanza | 24.375                            | 5.500                                 | 22.275                  | 4.867,50           |
| Asociación Kuentame                 | 20.000                            | 10.000                                | 18.850                  | 8.850              |
| Asociación Ai Laket                 | 29.750                            | 10.000                                | 29.750                  | 8.850              |
| Asociación Esku Hutsik              | 5.400                             | 3.400                                 | 4.058                   | 2.057              |
| Asociación Médicos del Mundo        | 13.870                            | 8.210                                 | 8.572,05                | 4.967,05           |
| Asociación Naizen                   | 8.000                             | 7.400                                 | 4.477                   | 4.477              |
| Asociación Zubia gurutzatzen        | 20.400                            | 10.000                                | 16.450                  | 6.050              |
| Fundación Itaka-Escolapios          | 25.064,71                         | 10.000                                | 25.064,71               | 9.700              |
| Asociación Besartean                | 4.935,30                          | 3.306,65                              | 4.775,30                | 3.207,45           |
| Konexio Ona                         | 16.380                            | 9.980                                 | 14.232,30               | 8.832,30           |
| Asociación IKIRIKI                  | 8.265,44                          | 8.265,44                              | 7.314,91                | 7.314,91           |
| Asociación ASPASOR                  | 11.290                            | 8.500                                 | 11.290                  | 7.522,50           |
| Asociación Nagusilan                | 16.947                            | 10.000                                | 16.947                  | 8.850              |

Bosgarrena. Balorazio batzordeak proposatuta, 2026ko uztailaren 6an behin-behinean onartu zuen Gizarte Politiketako zinegotzi ordezkariak goian adierazitako baldintzetan dirulaguntzak ematea eta proposamenak baztertzea. Deialdiaren oinarriekin bat etorriz, udalaren webgunean argitaratu zen, bai eta deialdira proiektuak aurkeztu zituzten erakundeek jakinarazpen elektronikoa ere.

Seigarrena. Eginaren Eginez elkarteak legezko epean eta moduan aurkeztu ditu alegazioak, eta ebazpen-proposamenaren aurka agertu da. Alegazio hauek egin ditu:

a. Aurkeztutako proiektua guztiz bat dator deialdiaren xedearekin.

Proiektuaren xedea ez da osasun-arretako, gaixotasunen prebentzioko, ohitura osasungarrien sustapeneko, errehabilitazioko, tratamenduko edo esku-hartze asistentzialeko programak garatzea. Proiektuaren xedea da «desgaitasuna duten pertsonen erabateko gizarteratzea zailtzen duten gizarte-oztopoei buruzko informazioa ematea, sentsibilizatzea eta gogoeta kolektiboa eragitea».

b. Ebazpen-proposamenak desgaitasunaren eta osasun publikoaren arteko identifikazio okerra du.

Elkartearen iritziz, proposamenak gizarte-sentsibilizazioko jarduketa bat osasun-proiektu batekin nahasten du.

c. Baztertze arrazoiak ez da nahikoa, eta ez du egiaztatzen oinarrietan aurreikusitako arrazoiaren bat dagoenik.

d. “Eginarek Eginez” elkartearen ustez, udal-erakundeak berretsi egiten du proiektua Gizarte Politiken Sailean txertatzen dela.

Eginaren Eginez elkarteak egindako alegazioak ikusita, horien aurkako txostena egin da, honako gogoeta hauetan oinarrituta:

Gizarte Politiken Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileek ezartzen dute honako hauek ez direla diruz lagunduko:

“Udaleko beste sail baten edo lurralde historikoko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko beste entitate baten berriazko eskumenekoak diren jardura edo ekintzek osatutako proiektuak”.

Zazpigarrena. Dirulaguntzak emateko behin-behineko ebazpenean arrazoitu zen bezala, Eginaren Eginez elkarteak aurkeztutako proiektua ez dator bat Gizarte Politiken Sailaren eskumeneekin; aitzitik, Kirol, Osasun Publiko eta Garapen Lankidetzarako Sailaren Osasun Publikoko Zerbitzuaren eskumene barruan sartuko litzateke.

Aipatutako sailak egina du 2026an gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia, zeinean sar bailiteke Eginaren Eginez elkartearen proiektua.

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailak gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako dirulaguntzak emateko 2026rako egiten duen deialdi horretan, hauxe xedatzen da diruz lagunduko diren programa eta jarduerari buruzko seigarren puntuan:

A Programa: izaera sanitarioko programak, patologia edo gaixotasun arraroak dituzten pertsonen arreta eta errehabilitazioa emateko prozesuan jarduerak egiteko, kaltetuen familiei zerbitzuak emateko eta herritar guztiei edo talde espezifikoiei zuzenduta dauden gaixotasun kronikoen zabalkunde- eta sentsibilizazio-proiektuak egiteko.

B programa: gizarte gaixotasunei buruz edo gaixotasunak eragindako estigma soziala murrizteari buruz sentsibilizatzeko programak.

Beraz, Eginaren Eginez elkarrekin aurkeztutako proposamena Osasun Sailaren deialdian sartu behar zela jotzen dugu, gaixotasun edo afekzio kronikoak dituzten pertsonen baitagokie. Era berean, proiektu hori Osasun Publikoaren Zerbitzuaren deialdi honen esparruan diruz lagun daitezkeen jarduketaren eremu materialaren barruan sartzen diren sentsibilizazio-jarduketei buruzkoa da.

Are gehiago, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen arabera, desgaitasuna duten pertsonen kolektiboaren arloa foru-administrazioen eskumena da.

Zortzigarrena. Deialdia onesteko irizpenean, dirulaguntza-deialdia ebatzeko eskumena Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzea onetsi zen, onuradunei dirulaguntza emateko izapideak arindu ahal izateko, administrazio-prozeduren eta kudeaketako jarduera materialen arrazionalizazio- eta arintasun-printzipioan oinarrituta, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1 d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, deialdiaren oinarrietan, Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetu zitzaizkion honakoak:

- Konpromisoa onartzea eta gastua aitortzea.
- Dirulaguntzaren justifikazioa egiaztatzea.
- Ebazpena aldatzea
- Bai eta kudeaketa-prozedurako gainerako egintza guztiak ere, baldin eta, araudi erregulazioaren arabera, dirulaguntza ematen duen organoaren erabakia edo ebazpena behar badute, egintza horien aurka jartzen diren berraztertze errekurtsoak ebazteari buruzkoak barne.

Hori guztia ikusirik, Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariak dirulaguntza-deialdi hau honela ebatzi du.

#### 1. Entitate hauei dirulaguntzak ematea:

| ERAKUNDEAK                          | AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN ZENBATEKOA | ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA | BIRFORMATUTAKO PROIEKTUAREN ZENBATEKOA | EMANDAKOA, GUZTIRA |
|-------------------------------------|--------------------------------------|---------------------------------------|----------------------------------------|--------------------|
| Asociación Teléfono de la Esperanza | 24.375                               | 5.500                                 | 22.275                                 | 4.867,50           |
| Asociación Kuentame                 | 20.000                               | 10.000                                | 18.850                                 | 8.850              |
| Asociación Ai Laket                 | 29.750                               | 10.000                                | 29.750                                 | 8.850              |
| Asociación Esku Hutsik              | 5.400                                | 3.400                                 | 4.058                                  | 2.057              |
| Asociación Médicos del Mundo        | 13.870                               | 8.210                                 | 8.572,05                               | 4.967,05           |
| Asociación Naizen                   | 8.000                                | 7.400                                 | 4.477                                  | 4.477              |
| Asociación Zubia gurutzatzen        | 20.400                               | 10.000                                | 16.450                                 | 6.050              |

| ERAKUNDEAK                   | AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN ZENBATEKOA | ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA | BIRFORMATUTAKO PROIEKTUAREN ZENBATEKOA | EMANDAKOA, GUZTIRA |
|------------------------------|--------------------------------------|---------------------------------------|----------------------------------------|--------------------|
| Fundación Itaka-Escolapios   | 25.064,71                            | 10.000                                | 25.064,71                              | 9.700              |
| Asociación Besartean         | 4.935,30                             | 3.306,65                              | 4.775,30                               | 3.207,45           |
| Konexio Ona                  | 16.380                               | 9.980                                 | 14.232,30                              | 8.832,30           |
| Asociación IKIRIKI           | 8.265,44                             | 8.265,44                              | 7.314,91                               | 7.314,91           |
| Asociación ASPASOR           | 11.290                               | 8.500                                 | 11.290                                 | 7.522,50           |
| Asociación Nagusilan         | 16.947                               | 10.000                                | 16.947                                 | 8.850              |
| Fundación Avanti BoscoSocial | 30.000                               | 10.000                                | -                                      | 10.000             |
| Asociación Insola            | 19.500                               | 10.000                                | -                                      | 9.700              |
| Fundación Corazonistas       | 29.990                               | 10.000                                | -                                      | 9.700              |
| Asociación Gizarterako       | 29.390,16                            | 10.000                                | -                                      | 10.000             |

Esleitutako zenbatekoa, guztira: 124.945,71 euro.

2. Ezestea “Eginaren Eginez” elkarteak sentsibilizaziorako, prebentziorako eta gizarte-sustapenerako informazio-helburuak dituzten jarduera eta ekintzetarako dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamenaren aurka aurkeztutako alegazioak.

3. Bazter uztea “Icono Difusión Cultural”, Ehunbide Fundazioa” eta “Eginaren Eginez” elkarteak aurkeztutako proposamenak, ebazpen-proposamenean azaldutako arrazoiengatik eta balorazio batzordearen aktarekin bat etorritz.

4. HIRUKIDE - familia ugarien elkartearen federazioak aurkeztutako proiektua baztertzea, ez duelako lortu bideragarritasun ekonomikoaren atalean eskatutako gutxieneko puntuazioa.

5. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta hura berariaz edo ustez ebatzi arte. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badeute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Hala ere, zuek erabakiko duzue egokien deritzozuena.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko irailaren 15ean

*Gizarte Politiken Saileko Zuzendaria*  
BONI CANTERO SEVILLA